

## ABOKATU EUSKALDUNEN EGUNA: Etorkizuneko abokatu euskaldunen bila

Bizkaiko abokatu euskaldunen batzordeko kideok bigarren bez antolatuko dugu Abokatu euskaldunen eguna. Etorkizuneko abokatu euskaldunen iritziak entzun nahi ditugu, eta lanean gaitzan abokatu euskaldunen iritziekin trukatu. Eta, zelan ez, Bizkaiko abokatu euskaldunen sarea trinkotu nahi dugu, ekintza ludikoen bidez eta elkarrekin berba egiteko aukerak baliatuz.

2017ko abenduaren 1ean bigarren bez Bizkaiko abokatu euskaldunen eguna egingo dugu. Goizean Abokatuen Bazkuneko areto nagusian izango gara.

Eguna: abenduaren 1a, ostirala.

Lekua: Bizkaiko abokatuen bazkuneko areto nagusian.

Egitaraua:

| Ordua | Zer?  | Nork?  |
|-------|---|--|
| 9:30  | Sarrera   | Zuriñe Pinedo + Batzako ordezkaria   |
| 9:45  | Mahai-ingurua: zer aukera / norabide izan dezake etorkizuneko abokatu euskaldun batek?        | Xabier Loizaga: abokatutza masterreko ikaslea<br>Ariane Arza: abokatutza masterreko ikasle ohia<br>Inma Ansotegi: abokatutza masterreko irakaslea.<br>Aurkezlea: Jon Iñaki Lasa, justizia saileko euskara teknikaria |
| 11:00 | Kafea   |  |
| 11:30 | Eta erdarazko testuak kontrakoa badio? Itzulpen ofizial kontrajarriak eta Quebec-eko ereduak. | David Rosales: abokatutza masterreko ikaslea.  |
| 12:15 | Abokatu euskaldunen batzordea: atzo, gaur eta bihar.  | Txerra Rodriguez, Bizkaiko abokatu euskaldunen batzordeko dinamizatzailea  |
| 13:00 | Amaiera: Bazkuneko abesbatza.   |  |

14:00 bazkaria Kafe Antzokian. Horren ostean, bertsoak izan ditugu: Nerea Ibartzabal eta Jone Uria. Bazkariak 13,5€ balio du. Ikasleek prezio erdia pagatu behar dute.

Izena emateko jardunaldian zein bazkarian bidali posta elektronikoa bat honako helbidera:

[abokatueuskaldunak@icasv-bilbao.com](mailto:abokatueuskaldunak@icasv-bilbao.com)

Abokatu Euskaldunak